



YOUTUBERREN BANKUA. Ibai Llanos eduki sortzailea, Revoluten kreditu txartel bat eskuan duela. BERRIA

Jokalari berria bankuen partidan

Revolut neobankua izugarri hazi da pandemiaren geroztik. Zerbitzu guztiak online eskaintzen ditu, eta bereziki zabaldu da atzerrira bidaiatzen duten gazteen artean.

Paulo Ostolaza

«Bizum ere badu orain Revolutek». Youtuben bideoak ikusi zale direnek entzungo zuten esaldi hori azken asteetan. Agian, Ibai Llanos eduki sortzaile ospetsua ere ikusiko zuten izen hori daraman kreditu txartel bat eskuetan duela. Baina zer da halako publikitate kanpaina puska egiten ari den enpresa hori?

Ziurrenik, irakurleak inguruan izango du haren bezero den norbait. Euskal Herriko daturik ez du eman, baina Espainian 3,5 milioi erabiltzaile ditu —kopurua %40 handitu da urtea hasi zenetik—, eta Frantzia hiru milioi baino gehiago. Europako Batasunean 34 milioi dira Revoluten zerbitzuak erabiltzen dituztenak.

Kalean, ordea, ez du sukurtsalik. Neobanku bat da, zerbitzu guztiak online eskaintzen dituen banku bat, sakelakorako aplikazioaren bitartez. Eredu horrekin bilakatu nahi du Europako banku handienetako bat. Izatez, bada: uda honetan, akzioak saltzeko egin duen eragiketa batean, enpresak 41.000 milioi euroko balioa duela ebatzi zuten. Besteak beste, Barclaysek eta Caixabankek baino gehiago.

Massimo Cermelli Deustuko

Unibertsitateko ekonomia irakasleak kontatu du fakultateko ikasleek sarritan aipatzen dutela Revolut. «Nagusiki gazteen artean ari da hedatzen, baita nerabeen gurasoen artean ere. Atzerrira doazen gazte askok kontu bat egiten dute». Izan ere, edozein herrialdean dirua ateratzeko eta ordainketak komisiorik gabe egiteko erraztasunak ematen ditu neobankuak, eta, hasieran bederen, horrek erakartzen ditu bezero gehienak.

Revoluten indargunea hori izan da, 2015. urtean Erresuma Batuan sortu zenetik. Aplikazioan bertan aldatu daiteke dirua txanpon batetik bestera, prezio onean.

Orain, ordea, eskaintza askoz oparoagoa du. 2020. urtea, pandemiarena, mugari izan zen: turismorik ez zenez, banku bilakatea erabaki zuen Revolutek, eta ordutik izugarri hazi da. Ohiko zerbitzuez gain, balio du akzioak eta kriptodirua aplikazioetik bertatik salerosteko, aurrezki kontu erakargarriak ditu, eta, duela pare bat astetatik, Bizum ere eskaintzen die erabiltzaileei.

«Bankuen munduko Apple izan nahi dugu, *player* bat, sektoreko gainontzeko eragileengan aldaketak eragiten dituen enpresa bat. Are produktu gehiago eskainiko

ditugu datozen hilabeteetan», adierazi du azken asteetan Ignacio Zunzunegui, Revoluten Europa hegoaldeko arduradunak. 2025. urterako, hipotekak eskaini nahi dituzte.

Errentagarria

Neobankuak ez ditu bere irabazien gaineko datu asko eman, baina behin eta berriz errepikatu du errentagarria dela, *start-up* asko ez bezala. 2023. urtean 2.000 milioi euroren diru sarrerak izan zituen, eta 500 milioi euro ingururen irabaziak. Aurtengo lehen seihilekoan %80 handiagoak izan ditu diru sarrerak.

Interneteko beste zenbait plataformak dituztenen moduko harpidetza zerbitzu bat du bankuak, Netflixek eta Spotifyk duten modukoa. Plan ugari eskaintzen ditu: hilabetean lau eurokoa izan daiteke, baina baita 45 eurokoa ere. Zenbat eta garestiago, orduan eta abantaila gehiago: komisio txikiagoak, interes tasa hobeak aurrezki kontuetan... doako bertsioan, esaterako, hilean 200 euro soilik atera daitezke kutxa automatikoetan komisiorik gabe.

Neobankuek ez dute ia azpiegitura fisikorik izaten, eta horrek lehiakorragoak izatea ahalbidetzen die. Hala eskaintzen dituzte

komisio txikiagoak eta interes tasa hobeak. «Banku tradizionalen euren inbertsio bankuak dituzte, bulego, kutxa automatiko eta langile mordo bat, eta hori guztia ordaindu egin behar da», azaldu du Cermelli.

Baina fidagarria da Revolut? Deustuko irakasleak erantzun du: «Segurua da, bai noski! Azken finean, EBZ Europako Banku Zentralaren galbahea pasatu du. Egia da egoitza nagusia Lituaniar izateari usain txarra hartzen diotela askok, baina banku tradizionalen bezainbesteko bermea eskaintzen du».

Urte hasierara arte, herrialde horrek gainbegiratzeko Revoluten jarduna. Hartu duen tamainaren ondorioz, baina, EBZren ardura da orain. Hark, besteak beste, agindu dio finantza krimenaren gaineko kontrola areagotzeko.

Egoitza Lituaniar izatea ez da arazo bat printzipioz, baina izan daiteke bankuak porrot egiten badu, herrialde horrek itzuli beharko baitzuke aurrezkiak erabiltzaileei. Ez dago argi Lituaniar horretarako gaitasunik ba ote duen: 70.000 milioi euroko BPG barne produktu gordina soilik du, EArena baino apalagoa.

Nitxoak

Revolut ez da merkatuan indartsu dabilen neobanku bakarra. Ezagunak dira N26 eta Bnext ere. Askoren berezitasuna da publiko oso jakinei bideratutako zerbitzuak eskaintzen dituztela. Adibidez, Ikualek kontu bat sortzeko erraztasunak ematen dizkie pasaportea beste agiririk ez duten migratzaileei; Nickel kutxa automatikorik ez duten landa eremuetan hedatu da; Bunq nomada digitaletan espezializatutako neobankua da; eta Imaginek Bizum zerbitzua eskaintzen die adingabeei. Gehiago ere badira.

«Bakoitza bere nitxoa topatzen saiatzen da, ezberdintzeko», hasi da Cermelli. «Negozio hau ez da gozotegiena bezala, non bakoitzak zapora bateko pastelak egin ditzakeen. Finantzian, dagoena dago: guztiak zerbitzu bera eskaintzen dute. Horregatik saiatzen dira bezero jakin batzuegan helden eta haiei egokitutako eskaintzak egiten».

Irakaslearen iritziz, «digitalizazioaren boom-ak» agerian utzi du neobankuen garrantzia. Zenbait faktore alde dituztela nabarmendu du: digitalizazioan eman diren aurrerapausoak, pandemiaren erabiltzaileak eskudiru gutxiago erabiltzera ohitu izana, eta turismoaren goraldia. «Horri guztiari esker hazi dira horrenbeste, negozio eredu oso simple batekin». ●



«Revolut segurua da, noski! EBZren galbahea pasatu du, eta banku tradizionalen adinako bermea eskaintzen du»

MASSIMO CERPELLI

Deustuko ekonomia irakaslea